

PROPOSAMENAREN JARRAIPEN FITXA

○ AURREKONTUAREN URTEA:

2017

○ PROPOSAMENA:

Nerabe eta gaztetxoentzako kultur - aisialdi ekintza gehiago antolatu, Gazte Txokoan egiten dena indartuz.

○ EGOERAREN AZALPENA:

Hernani Erabakiren baitan, nerabe-gazteentzat antolatutako ekintza gehiago eskaintzeko proposamena gauzatzen aritu zen Udala. Gainera, amaitu berria den kulturaren inguruko hausnarketan gazte eta nerabeei zuzendutako eskaintzari buruko kezka ere jaso da. Ondorioz, kezka hori aztertu eta plangintza bat osatzeko lanean jarri dira Hernaniko Kultura eta Gazteria Sailak. Plangintza hori, gainera, herriko kultur eragileekin batera egin nahi da. Hori dela eta, eragileek ikastaro egitasmoak aurkeztu ahalko dituzte. Ikastaroen helburuak nerabeen artean sormena sustatzea izan behar du: gazteak kultura kontsumitzaile hutsetik sortzaile izatera pasatzea da xedea. Horretarako, formatu laburreko ikastaroak izatea da asmoa.

Nerabe eta gazteentzako kultur eskaintza herriko eragileen bidez eskaintzeko aukera zabaldu zen. Deialdi bat egin zen eragileek ikastaroak proposatu zitzaizkien. Ez zuen erantzunik izan. Horren aurrean beste bide bat aukeratu zen. Ikastetxeen bidez galdetegi bat pasa zitzaizkien DBH1 eta 2 mailako ikasleei beraien zaletasunak ezagutzeko asmoz. Horiek oinarri hartuta, ikastaro ezberdinak egin ziren; batzuk tailer modukoak Hernaniko Gaztelekutik bideratu zirenak, eta, beste batzuk, ikastaro ertainak edo ikasturtekoak. 2019. urtean bide beretik jarraituko da. 2018. urtean balorazio positiboa jaso zuten ekintzak errepikatuko dira. Momentu honetan lotuak ditugu ondorengo ikastaro txikiak:

-Autodefentsa feminista

-Harremanak lantzeko tailerrak Gaztelekuan (sare sozialak harremanetarako bide eta interneten topatzen ditugun ereduak).

Hip hop ikastaroa 2018-2019 ikasturtekoa denez, martxan dago maiatzera arte.

Udarari begira ikastaro gehiago antolatzeko lanean gabiltza.

○ SAIL ARDURADUNA:

GAZTERIA

○ GARATU DEN EPEA:

○ AURREIKUSITAKO GASTUA:

25000

PROPOSAMENAREN JARRAIPEN FITXA



Neska gazteentzako
**AUTODEFENTSA FEMINISTA
TAILERRA (doan)**
Ekainak 19, 16:00-20:00 Biteri kultur etxean
Izen ematea: ekainaren 15era arte Biterin

  



**BITERI KULTUR ETXEA
2018/2019**

IKASTA ROAK

GAZTEAK (13-17 URTE)

**ANTZERKIA: denon artean
istorio bat sortu**

urtak 6-abenduk 15
Larunbata 11:30-13:30

ARGAZKILARITZA
telefonoarekin eta
aplikazioak erabiliz

urtak 1-abenduk 17
Astelehena 19:00-20:00

ZIRKUA EZAGUTUZ.
malabarez, lurreko eta
aireko akrobaziak, oreka,
klown ...

urtak 5-abenduk 14
ostirala 17:00-18:30

DANTZA: hip-hop, Funky

urtak 5-maiatzak 31
ostirala 18:30-19:30

IZEN-EMATEA
IRAILAREN 21a arte

PREZIOA:
Bertakoentzat:
34 € (urritik abendura)
39,15€ (urritik maiatzera)

Kanpokoentzat:
41,21 € (urritik abendura)
51,51 € (urritik maiatzera)

 **HERNANIKO**
Udala